3.2.) Aurreko atalean adierazitako bulegoetan aurkeztu beharko dira eskabideak, tasa ordaindu ondoren (ikus 3.6. oinarria), 20 egun naturaleko epearen barruan, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

3.3.) Halaber, estatuko administrazio orokorraren, autonomia erkidegoaren edo tokian tokiko administrazioaren –azken honi dagokionez, baldin eta horri buruzko hitzarmenik izenpetu badu– menpeko edozein administrazio organoren bidez ere aurkeztu ahal izango dira eskabideak, baita postetxeetan eta Espainiak atzerrian dituen konsulatuetako eta ordezkartza diplomatikoetako bulegoetan ere.

3.4.) Azterketa egiteko ordaindu beharreko tasak. Aurkezten diren deialdi bakoitzeko ordaindu beharko dute kuota lehiakideek, lanpostua zein titulazio taldetako den aintzat harturik, taula honi jarraiki:

TALDEA	KUOTA
A	19,57 euro.
B	15,65 euro.
C	11,74 euro.
D	7,83 euro.
E	3,92 euro.

proceso selectivo. En las bases específicas se establece el número de plazas para las cuales es preciso acreditar el nivel de euskera que establece su PL. El plazo para la acreditación de perfiles finaliza en la fecha en la que se realice la primera prueba de acreditación del perfil correspondiente al puesto. A los efectos de lo establecido en las bases 12.1 y 14.1, relativas a la posibilidad de ampliación de listas y a la generación de listas de contratación para sustituciones, la no superación de las pruebas de perfil lingüístico no supondrá la eliminación del proceso selectivo.

2.7.) Quienes concurren a plazas reservadas a personal minusválido deberán tener en la fecha de finalización del período de solicitudes reconocida la condición de tales, con discapacidad de grado igual o superior al 33% por el órgano competente de la administración.

En el anexo de cada plaza se recoge el número de plazas reservadas a este turno y el listado orientativo de minusválidas incompatibles con el desempeño del puesto. La Unidad de salud laboral será la que determine la aptitud en función del puesto, deficiencia y grado de minusvalía.

2.8.) Haber satisfecho las tasas para concurrir como aspirante a concursos, oposiciones y concursos-oposiciones para cubrir en propiedad plazas vacantes establecidas por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, dentro del plazo de presentación de solicitudes, correspondiente al grupo de titulación al que se concurre.

2.9.) Promoción interna. Para concurrir el/la funcionario/a deberá hallarse en situación de servicio activo, excedencia con reserva de puesto o servicios especiales, haber completado dos años de servicios en la escala y subescala de procedencia como funcionario/a de carrera, poseer la titulación y el resto de los requisitos establecidos para el acceso a la escala y subescala al que aspire a ingresar y no haber sido inhabilitado/a para ejercicio de cargo público por sentencia judicial firme, separado/a del servicio por sanción disciplinaria firme o estar suspendido/a de funciones en la fecha en la que finalice el plazo de presentación de solicitudes.

2.10) Requisitos de certificaciones I.T. Txartela. El plazo máximo para su acreditación será aquel en el que el tribunal calificador publique, con anterioridad a la propuesta definitiva de nombramiento, las puntuaciones obtenidas por los/as aspirantes que hayan superado los mínimos en las pruebas de la convocatoria. A estos efectos, el Ayto. de Vitoria-Gasteiz solicitará de oficio a la entidad emisora certificación de las acreditaciones que en esa fecha hayan obtenido los aspirantes.

TERCERA.- PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

3.1.) Quienes deseen tomar parte en las pruebas selectivas deberán hacerlo constar en la solicitud que al efecto se facilitará en modelo normalizado en las Oficinas Centrales de Información y Registro de Plaza España y Palacio Europa y en las Oficinas de Atención Ciudadana, a través de la Web municipal y a través del teléfono 010 (945.161.100). El impreso podrá ser descargado desde la Web municipal www.vitoria-gasteiz.org.

3.2.) Las solicitudes se presentarán en los centros que se relacionan en el apartado anterior, una vez realizado el pago de la tasa (ver base 3.6), dentro del plazo de 20 días naturales contados a partir del siguiente al anuncio de la convocatoria en el BOE.

3.3.) También podrán presentarse a través de cualquier órgano administrativo que pertenezca a la Administración general del Estado, de una comunidad autónoma o de alguna de las entidades que integran la Administración Local, si en este último caso, hubiese suscrito convenio al respecto. Podrán presentarse en las oficinas de correos y en las representaciones diplomáticas u oficinas consulares de España en el extranjero.

3.4.) Tasas por derechos de examen. La cuota a satisfacer por cada uno de los opositores y por cada convocatoria a la que se presentan se determinará en función del grupo al que corresponde al puesto a la que se concurre de conformidad con la siguiente tabla:

GRUPO	CUOTAS
A	19,57 eur.
B	15,65 eur.
C	11,74 eur.
D	7,83 eur.
E	3,92 eur.

3.5.) Dena dela, lanik gabe daudenek, kontratu finkorik ez dutenek, edo astean 35 orduetik beherako lan-kontratu dutenek edo barne sustapenaren bidez lehiatzen direnek ez dute azterketa tasarik ordaindu beharko.

3.6.) Eskabidea aurkeztean emango den ordaintzeko aginduaren bitartez ordaindu beharko da tasa, zeina nominala eta indibidualizatua izango baita aurkezten den plaza bakoitzerako. Vital Kutxaren bulegoetan egin ahal izango da ordainketa, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere, banku txartelaren bitartez, edo internet bidez. Ordainagiria gorde egin beharko du lehiakideak (ikus 12.3. oinarria).

3.7.) Agiri bidez edo horretarako egiten den probaren bidez lanposturako eskatzen den euskara maila dutela egiaztatzen dutenak derrigorrezko hizkuntz eskakizuna duten lanpostuetara nahiz ez dutenentara sartu ahalko dira.

3.8.) Eskabide orriari ez zaio inongo agiririk erantsi beharko. Merezimenduak egiaztatzeari dagokionez, ikus 8.9. oinarria; betebeharrak egiaztatzeari dagokionez, berriz, 12.3. oinarria.

3.9.) Deialdiko baldintza eta betebeharrak onartzeko konpromisoa dakar berekin eskabidea aurkezteak. Emandako datuetan faltsukeriarik atzemanaz gero, baztertu egingo da lehiakidea hautatze prozesutik.

3.10.) Hautatze probak zein hizkuntzatan, euskaraz (batua) ala gaztelaniaz, egin nahi dituzten adierazi beharko dute lehiakideek parte hartzeko eskabidean. Atal horretan ezer adierazi ezean probak gaztelaniaz egin nahi direla joko da zuzenean.

Gaitasun psikologikoak ebaluatzeko probak haiek diseinatuta dauden hizkuntzan edo hizkuntzetan (euskara eta/edo gaztelania) egingo dira.

LAUGARRENA.- BORONDATEZKO ARIKETAK

4.1.) Euskarako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egin nahi dituzten lehiakideek –betebeharra nahiz merezimendua izan–, edo gaztelaniaren jakite-maila –merezimendu gisa– egiaztatzeko probak egin nahi dituztenek, eskabidean adierazi beharko dute; izan ere, ez zaie horietan parte hartzeko aukerarik emango eskabideak aurkezteko epearen barruan hala adierazten ez dutenei.

BOSGARRENA.- EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONAK ETA HAURDUN DAUDENAK

5.1.) % 33ko edo hortik gorako elbarritasun edo ezintasunen bat duten lehiakideek, baita haurdun daudenek ere, hala adierazi beharko dute eskabidean.

5.2.) Hautatze probak egiteko beharrezko diren denbora- eta baliabide-egokitzapenak egingo ditu epaimahaiak. Nolanahi ere, ezingo du proba horien edukia itxuragabetu, ezta eskatu beharrek gaitasun-maila jaitsi edo murriztu ere. Egokitzapenen baten premia duten lehiakideek idazki baten bidez adierazi beharko dute –eskabideak aurkezteko epearen barruan–, eta bertan azaldu zer egokitzapen zehatz behar dituzten.

SEIGARRENA.- ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDA

6.1.) Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, hautatze prozesuan parte hartzeko onartuen eta hartatik baztertuen zerrendak onetsiko ditu Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariak, baztertze arrazoiak ere adieraziko baititu, eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) nahiz udaletxeko iragarki taulan (Espainia plaza, 1) argitaratzeko aginduko. Orobat adieraziko da bertan 10 laneguneko epea izango dela erreklamazioak aurkeztu nahiz izandako akatsak zuzenarazteko.

6.2.) Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta horiek ebatzi ondoren, eta langile batzordeari nahiz sindikatuei entzun ondoren, onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onetsiko ditu Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariak, eta zerrendak berak edo behin-behinekoen aldean izandako aldaketak ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan (Espainia plaza, 1) argitaratzeko aginduko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko bihurtuko dira behin-behineko zerrendak, besterik gabe.

HAZPIGARRENA.- EPAIMAHAI A

7.1.) Eranskinetan ageri da zehaztuta zeinek osatuko duten epaimahaia.

3.5.) No obstante, quienes estén en el paro, no tengan contrato fijo o tengan contrato de trabajo inferior a las 35 horas semanales o accedan por el turno de promoción interna, quedarán exentos en el pago de la tasa por derechos de examen.

3.6.) El abono de la tasa – nominal e individualizada por cada plaza a la que se opta- deberá realizarse mediante el orden de ingreso que se facilitará a la presentación de la solicitud. El pago podrá realizarse a través de las oficinas de Caja Vital, mediante tarjeta bancaria en las oficinas de atención ciudadana o a través de internet. El/la opositor/a deberá conservar el resguardo del ingreso (ver base 12.3).

3.7.) Quienes puedan acreditar documentalmente o mediante la prueba que se lleve al efecto el nivel de conocimientos de euskera requerido para el puesto optarán tanto a los puestos con perfil lingüístico preceptivo como a los que no tuviesen esta condición.

3.8.) No se adjuntará ninguna documentación a la hoja de solicitud. Para la acreditación de méritos ver base 8.9., para la acreditación de requisitos ver base 12.3.

3.9.) La presentación de la solicitud supone el compromiso de aceptación de las condiciones y requisitos exigidos en la convocatoria, la falsedad en los datos proporcionados supondrá la eliminación del proceso selectivo.

3.10.) Los/as aspirantes deberán comunicar en la solicitud de participación el idioma – euskera (batua) o castellano – en el que desean realizar las pruebas selectivas. De no señalar este apartado se entenderá, por defecto, que la/s prueba/s se realicen en castellano.

Las pruebas de evaluación de aptitudes psicológicas se realizarán en el idioma o idiomas (euskera y/o castellano) para el que hayan sido diseñadas.

CUARTA.- EJERCICIOS VOLUNTARIOS

4.1.) Los/as aspirantes que deseen la/s prueba/s de acreditación de perfiles de euskera – tanto como requisito como para méritos – y/o de castellano –como mérito- deberán hacerlo constar en la instancia, no siendo admitida su participación en las mismas si no lo hubieran hecho constar dentro del plazo de presentación de solicitudes.

QUINTA.- PERSONAS CON DISCAPACIDADES Y/O EN ESTADO DE GESTACIÓN

5.1.) Los/as aspirantes que concurren afectados con minusvalía o discapacidad, igual o superior al 33% y las aspirantes en estado de gestación deberán hacer constar esta circunstancia en la solicitud.

5.2.) El tribunal calificador establecerá las adaptaciones de tiempo y medios que fueran precisos para la realización de las pruebas selectivas siempre que con ello no se desvirtúe su contenido ni se reduzca o menoscabe el nivel de aptitud exigible. Los/as aspirantes que precisen de tales adaptaciones lo harán constar mediante escrito, en el plazo de presentación de solicitudes, con indicación expresa a las adaptaciones concretas que requieran.

SEXTA.- RELACIÓN E ADMITIDOS/AS Y EXCLUIDOS/AS

6.1.) Expirado el plazo de presentación de solicitudes, el/la Concejal delegado de Función Pública aprobará las listas provisionales de aspirantes admitidos/as y excluidos/as, con indicación en su caso de las causas de exclusión y ordenará su publicación en el BOTHA y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento (sito en Plaza España nº 1), con indicación de que dentro de los 10 días hábiles siguientes, los/as aspirantes podrán formular reclamaciones y subsanar, en su caso, los defectos en que pudiera haberse incurrido.

6.2.) Transcurrido el plazo de reclamaciones y una vez resueltas éstas, previa audiencia al comité y/o secciones sindicales, el/la Concejal/a de Función Pública aprobará las listas definitivas de aspirantes admitidos/as y excluidos/as y ordenará su publicación, o la de las modificaciones habidas con respecto a la lista provisional, en el BOTHA y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento (sito en Plaza España nº 1). Las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas si no se produjeran reclamaciones.

SÉPTIMA.- TRIBUNAL CALIFICADOR

7.1.) El Tribunal calificador para cada una de las convocatorias figura en el correspondiente anexo.

7.2.) Espezialitate-printzipioa bete beharko dute epaimahaikoek. Hortaz, lehiakideei eskatutakoaren maila bereko edo goragoko titulazioa eduki beharko dute bertako kide guztiek, eta gehiengo batek behintzat jakintza alor berekoa.

7.3.) Aholkulariak hartzerik izango du epaimahaiak hala egitea beharrezkotzat jotzen duen saioetarako. Beren espezialitate teknikoetan baino ez dira arituko aholkulari horiek. Jokabide Elkarriketa Egituratuaren eredia baliatuz gaitasunak ebaluatzeko probarik eginez gero, aditu bat izendatuko da, zeinak proba egin eta balioestea beste zereginik ez baitu izango, eta hitza eta botoa izango baitu horretarako; horren aurretik, gaitasunak eta/edo ezaugarri psikologikoak ebaluatzeko beste sistema batzuk erabili ahalko dira. (erreferentzia: 2002ko otsailaren 26ko agindua, EAEko Ogasun eta Administrazio Publiko Sailburuarena).

7.4.) Gizonezko eta emakumezkoen arteko oreka izan beharko du epaimahaiak, hau da, gutxienez 10etik 4 izan beharko dute batzuek nahiz besteek, hori egoki ez dela justifikatu ezean.

7.5.) Beharrezko diren neurriak hartuko ditu epaimahaiburua epaimahaiaren aurrean irakurtzekoak ez diren azterketa-aldiko idatzizko ariketak zein lehiakiderenak diren jakin gabe zuzentzen direla bermatze aldera.

7.6.) Epaimahaiak erabakiko ditu arau hauek aplikatzean sortzen diren zalantzak oro, baita arautu gabeko kasuetan nola jokatu ere.

7.7.) Epaimahaiko kide guztiek izango dute hitza eta botoa. Epaimahaiburua kalitateko botoa izango du, berdinketarik izanez gero.

7.8.) Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendarekin batera emango dira argitara izendatutako epaimahaiakideen izenak, baita horien ordezkorenak ere.

7.9.) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (HAEE) epaimahaiaren dagokion ordezkari gora-behera, erakunde horren ordezkari bat epaimahaiko kide izango da deialdian eskatzen diren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probetan.

7.10.) Epaimahaia ezingo da eratu, ezta jardun ere, epaimahaiakideen erdia baino gehiago, titular nahiz ordezko, bertan ez badira; gainera, ezinbestekoa izango da mahaiburua eta idazkaria bertan izatea.

7.11.) Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako kasuetan, epaimahaiakideek ezingo dute parte hartu, eta deialdia egin duen agintariari eman beharko diote horren berri. Gainera, lehiakideek errefusatu egin ahal izango dituzte.

7.12.) Lehiakideren batek deialdian ezarritako betebeharretakoren bat betetzen ez duela jakiten badu epaimahaiak hautatze prozedurako edozein unetan, hura baztertzeko proposatu beharko dio hartarako eskumena duen organoari, lehiakideak egindako okerren nahiz faltasutan berri emanik, betiere alde zuzenetik interesatuari entzun ondoren.

7.13.) Prozesuaren edozein faseri dagokion dokumentazioa eskatu ahal izango du epaimahaiak hautatze prozesuko edozein unetan, bertako edozein kidek hala eskatzen duelarik.

7.14.) Epaimahaiko idazkaria edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago –kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoiengatik–, epaimahaiak gehiengo erabakitzen duen kideak ordeztuko ditu.

7.15.) Epaimahaiko lehendakaria edo haren ordezkoa ordeztu beharra badago –kargua hutsik geratu delako, bertan ez direlako, gaixorik daudelako edo legezko beste edozein arrazoiengatik–, maila goreneko epaimahaiakidea izango da ordezkoa, eta maila berekoen artean, zaharrena.

7.16.) Gasteizko udaletxeko iragarki-taula (Espainia plaza, 1) izango da erabakiak, deiak, ariketen egun-orduak nahiz bestelakoak argitara emateko lekua, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 b) artikuluan xedatutakoa betetze aldera, eta banan-banako jakinarazpenen ondorio berberak izango dituzte argitalpen horiek.

7.2.) Sus miembros deberán responder al principio de especialidad. En su virtud, la totalidad deberá poseer una titulación de igual o superior nivel académico al de la exigida y la mayoría de ellos, al menos, una correspondiente a la misma área de conocimientos o especialidad funcional.

7.3.) El Tribunal podrá disponer la incorporación a sus trabajos de asesores/as especialistas para las pruebas que estime oportunas, limitándose dichos/as asesores/as a prestar su colaboración en sus especialidades técnicas. En el caso de realizarse pruebas de evaluación de competencias mediante el modelo de entrevista conductual estructurada, que podrán ser precedidas de otros sistemas de evaluación de capacidades y/o dimensiones psicológicas, se nombrará un especialista con el único cometido de su realización y valoración, actuando para ello con voz y voto. (Referencia: Orden 26 de febrero de 2002, de la Consejera de hacienda y administración pública de la CAPV).

7.4.) La composición del tribunal será equilibrada debiendo estar representado cada sexo al menos al 40% salvo que se justifique debidamente su no pertinencia.

7.5.) El presidente del tribunal adoptará las medidas oportunas para garantizar que los ejercicios de la fase de oposición, que sean escritos y no deban ser leídos ante el tribunal, sean corregidos sin que se conozca la identidad de los/as aspirantes.

7.6.) El tribunal resolverá todas las dudas que pudieran surgir en la aplicación de estas normas, así como lo que se deba hacer en los casos no previstos.

7.7.) Todos los miembros del tribunal tendrán derecho a voz y voto. El/la presidente/a tendrá voto de calidad en el caso de empate.

7.8.) La designación nominativa de los miembros del tribunal así como de sus suplentes se hará pública conjuntamente con la lista definitiva de admitidos/as y excluidos/as.

7.9.) Sin perjuicio de la representación que al IVAP le corresponde en el tribunal calificador, un representante de dicho instituto formará parte del tribunal en aquellas pruebas encaminadas a la acreditación de perfiles lingüísticos exigidos en la convocatoria.

7.10.) El Tribunal no podrá constituirse ni actuar sin la asistencia de más de la mitad de sus miembros, titulares o suplentes indistintamente, siendo preceptiva la asistencia del/la presidente/a y secretario/a.

7.11.) Los miembros del tribunal deberán abstenerse de intervenir notificándolo a la autoridad convocante y los/as aspirantes podrán recusarlos, cuando concurren las circunstancias previstas en el artículo 28 de la ley 30/92 de procedimiento administrativo común.

7.12.) En cualquier momento del proceso selectivo, si el tribunal tuviere conocimiento de que alguno/a de los/as aspirantes no cumple uno o varios de los requisitos exigidos por la presente convocatoria, previa audiencia del/la interesado/a, deberá proponer su exclusión al órgano competente, comunicando las inexactitudes o falsedades formuladas por el/la aspirante en la solicitud.

7.13.) El tribunal calificador, a petición de cualquiera de sus miembros, se reserva la posibilidad de solicitar en cualquier momento del proceso selectivo la documentación original que afecte a cualquier fase del proceso.

7.14.) La sustitución del/la secretario/a del tribunal, en los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal que afecte a este/a y su suplente, recaerá en cualquier otro de los miembros del tribunal elegido por acuerdo mayoritario de este.

7.15.) La sustitución del/la presidente/a del tribunal, en los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal que afecte a este/a y su suplente, recaerá en el/la componente del tribunal de mayor rango. A igualdad de rango el de mayor edad.

7.16.) De conformidad con el artículo 59.5 b) de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, el lugar de publicación de los acuerdos, llamamientos, convocatoria a examen y cualquier otro acto de comunicación dentro del proceso selectivo, será el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (sito en Plaza España nº 1), surtiendo los mismos efectos que las notificaciones personales.

7.17.) Epaimahaiaren jarduera nahiz argitalpenak direla-eta egiten diren alegazioak idatziz aurkeztu beharko dira, Argibide eta Erregistro Bulegoan nahiz Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan.

ZORTZIGARRENA.- ARIKETEN NONDIK NORAKOAK

8.1.) Gaiak, zereginak eta epaimahaiaren osaera lanpostuetako bakoitzari dagokion ERANSKINEAN ageri dira.

8.2.) Lehiakide guztiek batera egiterik ez dagoen ariketetan, honela jokatu da: lehen deitura une horretan indarrean den Administrazio Publikorako Estatu Idazkaritzaren ebazpenean zehaztutako letrakoa duten lehiakideak hasiko dira lehenik.

8.3.) Deialdi bakarra egingo zaie lehiakideei ariketetako bakoitzerako, eta bertaratzen ez direnak bazterturik geratuko dira, salbu eta behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak aintzat hartutako ezinbesteko kasuetan.

8.4.) Nortasun agiria edo pasaportearen eraman beharko dute lehiakideek probetara, eta edozein unetan eskatu ahal izango die epaimahaiak erakusteko.

8.5.) Lehenengo ariketa egiteko lekua, eguna eta ordua udaletxeko iragarki taulan argitaratuko dira, dena delako eguna baino gutxienez 6 lanegun lehenago. Deialdi hau BOEn argitaratu ondoren gutxienez 3 hilabeteko epea igaro beharko da lehen ariketa egiteko.

8.6.) Hurrengo ariketetako bakoitzera dei egiteko iragarkiak gutxienez ere dena delako ariketa egiteko eguna baino bost lanegun lehenago argitaratuko dira; dena den, epaimahaiak hautaprobak egitegiak argitaratu ahalko dituzte.

8.7.) Epaimahaiak erabakiko du, aurkeztutako lehiakide kopurua eta hautatze prozeduraren konplexutasuna aintzat harturik, zer egin lehenengo, azterketa edo merezimendu-lehiaketa. Nolanahi ere, azterketa-aldiko bigarren ariketako azken proba baztertzaila zuzendu aurretik argitaratuko merezimendu lehiaketarenak.

8.8.) Hautatze prozesurako behin betiko onartuek parte hartu ahal izango dute probetan. Orobat izango dute parte hartzeko aukera zerrendan baztertuta ageri direnek, baldin eta gora jotzeko errekurtsoa aurkeztua izanik proba-egunean hura oraindik ebatzi gabe dagoela egiaztatzen badute.

8.9.) Lehen ariketaren behin betiko emaitzak argitaratzeaz batera, bost laneguneko epea emango du epaimahaiak administrazioan egindako zerbitzuen egiaztagirak aurkezteko, merezimenduen atalean balioeste aldera. Gasteizko Udalaren kasuan, ofizioz sartuko da agiri hori dossierrean; interesdunak alde aurretik eskatu beharko du hori.

8.10.) Hautatze prozesuaren ezaugarriak kontuan izanik, epaimahaiak deialdiak, hautaprobak edo zuzenketak bateratzerik izango dute gai-zerrenda bera badute, edo, proba psikoteknikoen kasuan, ebaluatzeko tresna berak erabiltzen badira.

BEDERATZIGARRENA.- HAUTATZE PROZESUA

Hautatze prozesuak bi fase izango ditu: azterketa eta merezimendu-lehiaketa, zeini hirugarren bat gehitu ahal izango baitzaie hala erabakitzen den kasuetan: prestakuntza/praktika-aldia.

Proba eta puntuazio hauek izango ditu hautatze prozedura orokorrak:

Azterketa. Gehieneko puntuazioa: 70 puntu; 2 ariketa baztertzaila izango dira:

Lehen ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzaila. Nahitaezko bi proba egin beharko dira. Gehienez ere 30 puntu atera ahal izango dira ariketa horretan, eta gutxienez 15 atera beharko dira, gainditzeko.

1. proba: Nahitaezkoa, teorikoa, test modukoa, ikasgai orokorrei buruzko galderez osatua (ikus lanpostu bakoitzari dagokion eranskina). Proba egin aurretik finkatuko du epaimahaiak proban zuzenean lortzen diren puntuen eta probako puntuazioaren arteko korrelazio-formula. Probaren gehieneko puntuazioa: 10 puntu.

7.17.) Las alegaciones ante las actuaciones y/o publicaciones del tribunal se presentarán, por escrito, en la oficina de información y registro y oficinas de atención ciudadana.

OCTAVA.- DESARROLLO DE LOS EJERCICIOS

8.1.) El temario y las funciones, junto con la composición del tribunal calificador vienen recogidos en el anexo correspondiente a cada puesto ofertado.

8.2.) El orden de actuación de los/as aspirantes se iniciará, en aquellos ejercicios que no puedan ser realizados simultáneamente por todos/as los/as aspirantes, por el/la aspirante cuyo primer apellido comience por la letra que de conformidad con lo establecido en la resolución de la Secretaría de estado para la administración pública esté vigente en el momento de la selección.

8.3.) Los/as aspirantes serán convocados/as para cada ejercicio en un único llamamiento siendo excluidos/as del proceso selectivo quienes no comparezcan, salvo en los casos de fuerza mayor debidamente justificados y apreciados por el tribunal.

8.4.) Los/as aspirantes deberán comparecer a las diferentes pruebas provistos de su documento nacional de identidad oficial o pasaporte cuya presentación podrá ser exigida por el tribunal en todo momento.

8.5.) El lugar, fecha y hora de celebración del primer ejercicio se publicará en el tablón de anuncios del Ayuntamiento al menos con seis días hábiles de antelación a su celebración. En ningún caso podrá celebrarse el primer ejercicio en un plazo inferior a 3 meses desde el anuncio en el BOE de la presente convocatoria.

8.6.) La publicación de los sucesivos anuncios de celebración de cada uno de los ejercicios se efectuará con al menos cinco días hábiles de antelación, sin perjuicio de que los tribunales calificadores puedan publicar calendarios de prueba/s selectivas.

8.7.) En atención al número de aspirantes presentados/as y a la complejidad del procedimiento selectivo, el tribunal determinará el orden de realización de la fase de concurso y de la fase de oposición. En cualquier caso la publicación de los resultados de la fase de concurso, será previa a la corrección de la última prueba eliminadora del segundo ejercicio previsto en la fase de oposición.

8.8.) A la realización de las pruebas podrán asistir los/as aspirantes que figuren como definitivamente admitidos/as al proceso, así como aquellos que, figurando como excluidos acrediten en el acto convocado la interposición del correspondiente recurso de alzada pendiente de resolución.

8.9.) El tribunal, conjuntamente con la publicación de los resultados definitivos del primer ejercicio, establecerá un plazo de cinco días hábiles para la presentación de los certificados de servicios prestados en la administración cara a su valoración en el apartado de méritos. En el caso del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz esta información, previa solicitud del interesado, se aportará de oficio al expediente.

8.10.) En atención a las características del proceso selectivo los diferentes tribunales calificadores podrán unificar sus convocatorias, pruebas selectivas y/o correcciones en los casos en los que estas se refieran a temarios iguales o, en el caso de pruebas psicotécnicas, se utilicen las mismas herramientas de evaluación.

NOVENA. PROCESO SELECTIVO

El proceso de selección contará con dos fases, la de oposición y la de concurso, ampliable en los casos que se determine a una tercera denominada de formación/prácticas.

El proceso selectivo general tendrá las siguientes fases y puntuaciones:

Fase de oposición. Puntuación máxima: 70 puntos constará de 2 ejercicios eliminatorios:

Primer Ejercicio. Obligatorio y eliminatorio. Consistirá en la realización de las dos pruebas obligatorias. La puntuación máxima alcanzable será de 30 puntos, debiéndose obtener para su superación un mínimo de 15 puntos.

1 Prueba: obligatoria, teórica, tipo test, planteada por el tribunal en relación con la parte común del temario (ver anexo de cada puesto). El tribunal establecerá, con carácter previo a la ejecución de la prueba, las fórmulas de correlación entre las puntuaciones directas obtenidas en la prueba y las puntuaciones asignadas a esta prueba. Puntuación máxima de la prueba: 10 puntos.

2. proba: Nahitaezkoa, teorikoa, berariazko ikasgaiei buruzkoa (ikus lanpostu bakoitzari dagokion eranskina). Proba hau test erakoa izango da E edo D taldeetako lanpostuetarako deialdietan. Probaren gehieneko puntuazioa: 20 puntu.

Bigarren ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Lanpostu bakoitzaren eranskinean zehazten da nolako probak egingo diren bigarren ariketa hau balioesteko.

Ariketako proba multzoan gehienez atera daitekeen puntuazioa: 40 puntu. Ariketa gainditzeko gutxienez 20 puntu atera beharko da eta, halakorik bada, proba bakoitzean ezarritako gutxienekoa.

Merezimendu-lehiaketa.

M1.- Euskara jakitea. Egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren edo horretarako proban egiaztatzen dena balioetsiko da, lanpostuari dagokiona aintzat harturik. Hauxe izango da baremoa:

3. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak.

- 3. HE duten lanpostuak.

1. HE: 3,33 puntu.

2. HE: 6,66 puntu.

3. HE: 10,00 puntu.

2. hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak.

- 2. HE duten lanpostuak.

1. HE: 2,00 puntu.

2. HE: 4,00 puntu.

- 1. HE duten lanpostuak.

1. HE: 4,00 puntu.

Derrigortasun datarik ez duten lanpostuetan, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako data hori bete gabe badago balioetsiko da bakarrik euskara jakitea. Ez dira aintzat hartuko lanpostuari dagokiona baino goragoko hizkuntza eskakizunak.

M2.- Gaztelania jakitea. Gaztelaniaren jakite-maila neurtzeko proba edo proben emaitzaren arabera balioetsiko da, baremo honen arabera:

- 3. edo 4. HE duten lanpostuak. Bi proba izango dira. Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 10 puntu.

Test moduko proba izango da, eta bertan gramatika, ortografia eta hiztegiarekin lotutako ezagutzak balioetsiko dira. Gehienez ere 4 puntu atera ahal izango dira ariketa horretan, eta gutxienez puntuen % 50 atera beharko dira bigarren proba kontuan hartzeko. Probaren puntuazio osoaren % 50era iristen ez diren puntuazioei 0 puntu emango zaie.

Idazlana. Aurreko proban adierazitako alderdiez gain, idatzizko hizkuntzaren berezko baliabide linguistikoak zuzen erabiltzea eta informazioa antolatzea ahalmena hartuko dira aintzat. Gehienez 6 puntu emango dira proba horretan.

- 1. edo 2. HE duten lanpostuak. Gehienez lortu daitekeen puntuazioa: 4 puntu.

Proba borondatezkoa izango da, test modukoa, eta bertan gramatika, ortografia eta hiztegiarekin lotutako ezagutzak balioetsiko dira. Proba honetan gehienez 4 puntu lortu ahal dira. Guztira gehienez lor daitekeen gehieneko puntuaketaren % 50etik beherako puntuazioa izanez gero atal honetako kalifikazioa 0 izango da.

Hautaprobetan onartuak izateko eskabideak "borondatezko beste ariketa batzuk" atalean eskatu dutenek hartu ahaliko dute parte proba honetan.

M3.- Beste hizkuntza batzuk jakitea. A edo B taldeetako lanpostuetarako Espainian edo Europar Batasunean ofizial diren beste hizkuntza batzuk jakitea balioetsiko da. Hizkuntza Eskolako goi mailako titulua edo baliokidea izatea besterik ez da balioetsiko; hizkuntza bakoitzeko puntu bat emango da, eta gehienez 2 puntu lortu ahal da. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako egiaztatu beharko da hori.

M4.- Administrazio publikotzat jotzen diren erakunde eta antolakundeetako esperientzia profesionalaren balioespena. Organo eskudunak emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko da.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, merkataritza legediak aurreikusitako bitartekoren bidez administrazio publikoek

2 Prueba: obligatoria, teórica, planteada por el tribunal en relación con la parte específica del temario (ver anexo de cada puesto). Esta prueba deberá ser tipo test en las convocatorias de puestos de grupos E o D. Puntuación máxima de esta prueba: 20 puntos.

Segundo Ejercicio. Obligatorio y eliminatorio.

En el anexo correspondiente a cada plaza se establecen el tipo de pruebas que se realizarán para valorar este segundo ejercicio.

Puntuación máxima alcanzable por el conjunto de las prueba/s del ejercicio: 40 puntos. Para superar el ejercicio será preciso alcanzar un mínimo de 20 puntos y, en su caso, el mínimo establecido en cada prueba.

Fase de concurso.

M1.- Valoración conocimientos de Euskera. Se valorará en función del perfil lingüístico que se tenga acreditado, o se acredite en la prueba de acreditación que al efecto se realice, y del asignado al puesto con el siguiente baremo:

Puestos con perfil lingüístico 3.

- Puestos con PL 3.

PL 1: 3,33 puntos.

PL 2: 6,66 puntos.

PL 3: 10,00 puntos.

Puestos con perfil lingüístico 2.

- Puestos con PL 2.

PL 1: 2,00 puntos.

PL 2: 4,00 puntos.

- Puestos con PL 1.

PL 1: 4,00 puntos.

Solamente se valorará el conocimiento de euskera en el acceso a puestos sin fecha de preceptividad o si ésta no hubiese vencido en la fecha de fin del período de presentación de solicitudes. No se valorarán PL acreditados superiores a los exigibles para el puesto.

M2.- Valoración conocimientos de Castellano. Se valorará en función del resultado de la prueba o pruebas que al efecto se realicen en relación con el conocimiento del idioma castellano de acuerdo al siguiente baremo:

- Puestos con PL 3 ó 4. Constará de dos pruebas. Puntuación máxima alcanzable: 10 puntos.

Prueba tipo test en la que se valorarán los conocimientos de gramática, ortografía y vocabulario. Esta prueba se valorará con un máximo de 4 puntos siendo necesario alcanzar un mínimo del 50% para que pueda ser valorada la segunda prueba. Las puntuaciones inferiores al 50% de la puntuación total de la prueba supondrán una puntuación de 0 puntos.

Prueba de redacción. Se valorará, además de los aspectos señalados en la prueba anterior, el dominio de los recursos lingüísticos propios de la lengua escrita así como la capacidad de organización de la información. Esta prueba se valorará con un máximo de 6 puntos.

- Puestos con PL 1 ó 2. Puntuación máxima alcanzable: 4 puntos.

La valoración se realizará mediante una prueba tipo test en la que se valorarán los conocimientos de gramática, ortografía y vocabulario. Esta prueba se valorará con un máximo de 4 puntos Las puntuaciones inferiores al 50% de la puntuación total supondrán una puntuación de 0 puntos en este apartado.

Podrán participar en esta prueba quienes lo hayan solicitado en el apartado "otros ejercicios voluntarios" de la solicitud de admisión a pruebas selectivas.

M3.- Valoración conocimientos de otros idiomas. Para puestos de grupo A o B se valorará el conocimiento de otros idiomas que sean oficiales en el Estado español o en la Unión europea. Se valorará exclusivamente estar en posesión del título superior de la Escuela de idiomas o equivalente a razón de 1 punto por idioma y hasta un máximo de 2 puntos. El plazo para su acreditación será el de la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

M4.- Valoración experiencia profesional en las entidades y organismos que tengan la consideración de administración pública. Se acreditarán mediante certificación expedida por el órgano competente.

A efectos de lo previsto en el párrafo anterior, deben considerarse incluidas en el sector público.

kontrolatzen dituzten sozietateak sektore publikoan sartuta daudela joko da, baldin eta administrazio publikoek horietan duten partaidetza zuzena edo zeharkakoa legez ezarritako ehunekoa bestekoa edo hori baino handiagoa bada.

Eskuratu nahi den lanpostuaren kategoria eta zeregin beretan egindako lanaldiak baino ez dira balioetsiko, zerbitzaldi-ziurtagirien bidez egiaztatzen direlarik, edozein harreman juridikoren menpean eginak izanda ere, zerbitzu zibilak edo merkataritza-zerbitzuak akuratzeko kontratuak, bekak eta prestakuntza-praktikak izan ezik.

Ez dira aintzat hartuko lan-esperientziaren alorreko merezi-menduak honako hauek berariaz adierazten ez badira:

betetako lanpostuaren izena eta lanbide kategoria.

kontratazio-aldien hasiera eta bukaera datak.

lanpostuaren zeregin nagusiak, kategoria adieraztea aski ez dela uste izanez gero.

Balioespena: administrazioan egindako egun bakoitzeko 0,002 puntu emango dira, gehienez 4 puntura arte.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu aurrekoak bakarrik hartuko dira aintzat, edozein izanik ere lanaldi horietako dedikazioa. Zenbaketak egiteko, ziurtagiriak batuketarik gabe aurkezten badira, edo epaimahaiak batutako epe guztiak kontuan hartzen ez baditu, lanean emandako urte oso bakoitza 365 egun direla joko da, eta lanean emandako hilabete oso bakoitza 30 egun.

Prestakuntza/praktika-aldia.

Hautatze prozesuaren zati gisa sartuta dagoen lanpostuetan (ikus lanpostuaren eranskina), prestakuntza eta praktika aldi bat izango da –inolaz ere ezingo da izan sei hilabetetik gorakoa–. Proposatutako lehiakideek gainditu egin beharko dute hautatze prozesuko fase hori ere –lehenik prestakuntza aldi bat izan ahalko da, eta ondoren praktika aldia–. Hori guztia programatu, antolatu eta bideratzeaz Giza Baliabideak Garatu eta Kudeatzeko Zerbitzua arduratuko da.

Agiriak aurkezteko epea bukatzen denean, hautatuak izateko proposatutako enbenda argitaratuko da ALHAOn, eta horiek praktika aldiko funtzionario izendatuko. Horrenbestez, prestakuntza ikastaroa eta praktika aldia egin beharko dute, harik eta karrerako funtzionario izendatu edo hautatze prozesutik kanpo utzi arte.

Praktika aldiko funtzionario diren bitartean, sartzekotan diren kategoriako sailkapen-taldeari dagozkion soldataren eta aparteko ordainsarien pareko ordaina jasoko dute. Ordain hori gehitu egingo da baldin eta praktika aldia lanpostu batean jardun ez egiten bada, hari dagozkion osagarriko ordainketak ere ordainduz.

Prestakuntza ikastaroak eta praktikak, zeinek bere aldetik, baztertze indarra izango dute, eta gainditzen ez badira, lehiakidea hautatze prozesutik kanpo geratuko da besterik gabe, eta dena delako eskala edo kategorian sartzeko eskubideak oro galdu egingo dira, bai eta eta izendatzeko eskubide oro ere, alkatearen ebazpen arrazoituaren bidez, eta lanpostua bete gabe geratuko da.

Prestakuntza ikastaroko eta praktika aldiko emaitzak ikusirik, prozesua gainditu duten lehiakideak karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egingo du Garapen eta Giza Baliabideen Kudeaketarako Zerbitzuak.

HAMARGARRENA.- EMAITZAK ARGITARATZEA

10.1.) Aukera anitzeko galderen bidezko ariketak (test erakoak) egin ondoren, epaimahaiak ariketa bera nahiz erantzun zuzenen behin-behineko orria eta kalifikazio irizpideak argitaratuko ditu, eta bi laneguneko epea emango horien inguruko alegazioak aurkezteko.

10.2.) Alegaziorik aurkezten bada, epaimahaiak berrikusi egingo ditu ebaluazioa irizpideak, behin betiko txantiloia onetsiko du eta probak zuzenduko ditu.

10.3.) Epaimahaiak dena delako erabakia hartzen duen egunaren ondoko lehen lanegunean kaleratuko dira ariketetako bakoitza gainditu

Aquellas sociedades controladas por las Administraciones públicas por cualquiera de los medios previstos en la legislación mercantil, y en las que la participación directa o indirecta de las citadas administraciones públicas sea igual o superior al porcentaje legalmente establecido.

Se valorará el trabajo acreditado mediante “Certificado de servicios prestados” en funciones y categorías similares a las del puesto al que se opta, bajo cualquier relación jurídica, excepto contratos de arrendamientos de servicios civiles o mercantiles, becas y prácticas formativas.

No se valorarán aquellos méritos relacionados con la experiencia laboral donde no se indique expresamente:

denominación y categoría profesional del puesto desempeñado.

fecha de inicio y fin de los periodos de contratación.

funciones principales del puesto, si se considerase que la indicación de la categoría no fuese suficiente.

Valoración: Se valorará a razón de 0,002 puntos por día en administración hasta un máximo de 4 puntos.

Se contabilizarán solamente los períodos anteriores a la fecha de fin del plazo de presentación de solicitudes e independientemente de su dedicación. A los efectos de cómputo, y en los casos de los certificados que se presenten sin sumatorio o el tribunal no considere todos los períodos sumados, la fórmula a emplear será la que considera cada año completo trabajado como 365 días y cada mes completo trabajado como 30 días.

Fase de formación-prácticas.

En los puestos que lo tengan definido como parte del proceso selectivo (Ver anexo correspondiente al puesto) se establece un período de formación y prácticas que no podrá ser superior, en ningún caso, a 6 meses. Los/as aspirantes propuesto/s deberá/n superar esta fase más del proceso selectivo, que podrá constar de un primer período de formación y otro de realización de prácticas, cuya programación, organización y desarrollo corresponderá al Servicio de desarrollo y gestión de recursos humanos.

Finalizado el plazo de presentación de documentos, la relación de aspirantes propuestos/as se publicará en el BOTHA y serán nombrados/as funcionarios/as en prácticas, debiendo incorporarse al curso de formación y período de prácticas que corresponda, hasta en tanto se produzca su nombramiento como funcionario/a de carrera o su exclusión del proceso selectivo.

Como funcionarios en prácticas percibirán una retribución equivalente al sueldo y pagas extraordinarias correspondiente al grupo de clasificación de la categoría en la que aspiren a ingresar, que se incrementará, si las prácticas se realizan desempeñando un puesto de trabajo, en las retribuciones complementarias asignadas a éste.

Los cursos de formación y períodos de prácticas tendrán carácter eliminatorio individualmente considerados y su no superación determinará la automática exclusión del aspirante del proceso selectivo y la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirle para su ingreso en la correspondiente escala o categoría, perdiendo todos los derechos a su nombramiento por resolución motivada de Alcaldía quedando la plaza desierta.

A la vista de los resultados del curso de formación y el período de prácticas, el Servicio de desarrollo y gestión de recursos humanos propondrá el nombramiento como funcionario/a de carrera, de aquellos/as aspirantes que hubieran superado dicho proceso.

DÉCIMA.- PUBLICACIÓN DE RESULTADOS

10.1.) A la finalización de los ejercicios que se realicen bajo la fórmula de cuestionario con alternativas de respuesta (tipo test) el tribunal calificador publicará tanto el ejercicio como la plantilla provisional de respuestas correctas y/o criterios de evaluación, estableciéndose un período de presentación de alegaciones ante los mismos de dos días hábiles.

10.2.) A la vista de las alegaciones presentadas el tribunal revisará sus criterios de evaluación, aprobará la plantilla definitiva y procederá a la corrección de las pruebas.

10.3.) El tribunal calificador hará públicas las calificaciones de los/as aspirantes que hubiesen superado cada ejercicio, conjun-

duten lehiakideen kalifikazioak, bai eta zuzenketa txantiloian egin diren aldaketak ere.

10.4.) Ariketetako bakoitzaren emaitzak argitaratzen direlarik, gutxienez hiru laneguneko epea emango da horiek berrikusteko, eta ondoren bi laneguneko epea erreklamazioak aurkezteko (azterketa berrikusteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita). Erreklamazioak epaimahaiburuari zuzenduko zaizkie, idatziz.

10.5.) Azterketa-aldiko ariketak oro eta merezimendu-lehiaketa burutu ondoren, proba guztiak gainditu dituzten lehiakideen zerrenda emango du argitara epaimahaiak, guztira lortutako puntuazioen arabera sailkatuta, ariketa bakoitzean lortutako puntuak ageri direla.

10.6.) Lehiakideek horretarako epearen barruan aurkezten dituzten berrikusteko eskabide eta erreklamazioak oro berrikusi eta erantzuntzat joko dira epaimahaiak ariketetako bakoitzaren behin betiko emaitzak onesteko erabakia hartzen duelarik. Behin betiko emaitzei buruzko erabakiaren kontra gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute lehiakideek, Gasteizko Udaleko Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

HAMAİKAGARRENA.- DATU PERTSONALAK

11.1.) Hautatze prozesuan parte hartzeak eskabidean adierazitako norberaren datuen tratamendua onartzen dela esan nahiko du; hau da, prozesuaren baitako emaitza partzialak nahiz behin betikoak buletinetan, iragarki tauletan, web-orrian eta bestetan argitaratzea onartzen dutela lehiakideek.

11.2.) Publikotasun printzipioaren menpe daude hautatze prozesuak; beraz, lehiakideak bere datuak baliatzea onatzen eman ezean, ez da haren eskabidea onartuko. Norberaren datuak ikusi, zuzendu, ezeztatu nahiz kontra agertzeko eskubideak baliatzeko, deialdia egin duen organoarengana jo ahal izango da.

HAMABIGARRENA.- IZENDATZEKO PROPOSAMENA

12.1.) Deialdi honen bidez egiten den eskaintzan jasotako lanpostuen kopurua handitu egin ahal da lanpostuak hutsik geratzen badira titularraren sustapena, erretiroa, heriotza edo lanpostua gordetzen ez den lan-utzialdia direla medio, edo lanpostu berriak sortzen badira lanpostuen zerrendan deitutakoak bezalakoak diren lanpostuak finkatzearen ondorioz. Epaimahaiaren eskariz Funtzio Publikoaren Sailak lanpostu hutsei buruzko txostena egiten duen eguna izango da lanpostuen kopurua handitzeko gehienezko epea.

12.2.) Hutsik dauden lanpostuei buruzko arauzko txostena eskatuko dio epaimahaiak Funtzio Publikoaren Sailari, eta gehienez hiru laneguneko epean egin beharko du hark, eskabidea egiten zaionetik kontatuta.

12.3.) Deialdiko probetan gutxienerako puntuazioak gainditu dituzten lehiakideen emaitzak argitaratuko ditu epaimahaiak behin betiko izendapen-proposamena egin aurretik, baita behin betiko lanpostu eskaintza ere. Halaber, bost laneguneko epea emango du deialdiko betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten jatorrizko agiriak Funtzio Publikoaren Sailean aurkezteko.

12.4.) Epe berean, lehiakideek eskaintzen diren lanpostuei atxikitze behin-behineko eskabidea egingo dute, azken izendapenak baldintzatuta.

12.5.) Funtzio Publikoaren Sailak, eskaerak aztertu ondoren, atxikipenerako behin-behineko eskaerekin batera txosten bat igorriko dio epaimahaiari.

12.6.) Betetzeko betebeharrak jakin bat edukitzea eskatzen duten lanpostuak ezingo dituzte bete, inolaz ere, betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu ez duten lehiakideek.

12.7.) Betetzen ez badira, barne sustapeneko lanpostuak txanda irekikoei gehituko zaizkie.

12.8.) Deialdi irekian elbarritasunen bat dutenentzat gordetako lanpostuak, betetzen ez badira ere, ez zaizkie txanda irekikoei gehituko. Betetzen ez badira, barne sustapenean elbarritasunen bat dutenentzat gordetako lanpostuak, txanda irekikoei gehituko zaizkie.

tamente con las modificaciones que pudiese haber a la plantilla de corrección, el siguiente día hábil a la reunión en que se hubiesen acordado.

10.4.) Después de la publicación de los resultados de cada ejercicio se establecerá un plazo mínimo para revisión de exámenes de tres días hábiles y un plazo subsiguiente de reclamaciones de dos días hábiles a contar desde la finalización del plazo de revisión del examen. Las reclamaciones deberán dirigirse al presidente del tribunal por escrito.

10.5.) Concluida la realización de todos los ejercicios y de la fase de concurso, el tribunal hará pública la relación de aspirantes que hubiesen superado todas las pruebas, por orden de puntuación total alcanzada, con indicación de los puntos obtenidos en cada ejercicio.

10.6.) Todas las solicitudes de revisión y reclamaciones presentadas por los/as aspirantes en el plazo correspondiente se entenderán revisadas y contestadas en el acuerdo del tribunal calificador por el que se aprueben los resultados definitivos de cada ejercicio. Ante el acuerdo definitivo de resultados los/as aspirantes podrán interponer en el plazo de un mes contado a partir del siguiente a su publicación, recurso de alzada ante la Concejala delegada del Área de función pública del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

UNDÉCIMA. DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

11.1.) La participación en este proceso selectivo supone la aceptación por parte de los/as aspirantes del tratamiento de los datos de carácter personal recogidos en la solicitud para las publicaciones en boletines, tabloneros de anuncios, página web y otros medios de los resultados parciales y definitivos del proceso selectivo.

11.2.) Los procesos selectivos están regidos por el principio de publicidad por lo que no se admitirá la solicitud del aspirante si éste no consiente la cesión de sus datos. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición pueden dirigirse al órgano convocante.

DUODÉCIMA.- PROPUESTA DE NOMBRAMIENTO

12.1.- El número de plazas objeto de convocatoria de la presente oferta de puestos podrá ampliarse con las vacantes que puedan producirse por promoción, jubilación, fallecimiento y/o excedencia sin reserva de plaza de su titular, nueva creación como resultado de la consolidación en RPT de nuevos puestos iguales a los convocados. La fecha límite de ampliación de plazas será aquella en la que a petición del tribunal calificador el Dpto. de Función Pública elabore el informe de vacantes.

12.2) A los efectos del apartado anterior el tribunal requerirá del Dpto. de Función Pública informe preceptivo relativo a las vacantes existentes, informe que deberá ser evacuado un plazo máximo de tres días hábiles a partir de la petición.

